

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko martxoaren 24a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Asteburuan kontsumo berdearen aurreneko erakusketa izanen da herriko plazan

Pello Iturria • «Mendian jaten dugunarekin kontu handiz ibili behar da»

Ondarea zaindu eta sustatu



• UXUIE MONTERO



Nafarroako Erdialdeko Erriberri, Uxue eta Artaxona herriek elkarte bana dute bertako ondarea zaindu eta sustatzeko. Herri bakoitzarena ez ezik eskualde osoaren onura dute gogoan, ondare historiko-artistikoak erakar dezakeen turismoa diru iturri handia baita Erdialdearendako.



Baztan • Suteak edonon

Asteburu bakar batean sei bat sute itzali dituzte Oronozko suhiltzaileek

Urtero gertatzen da gauza bera; larreak erretzeko garaia heldu denean, ohikoa da Baztanen kontrolik gabeko suak ikustea. Ez dago modurik nekazariak eta abeltzainak kontzientziatzeko, eta mendi zati handiak erretzen dituzte suhiltzaileei deitu gabe.



Sute asko itzali behar izan dituzte Oronozko suhiltzaileek asteotan.

RAKEL GOÑI

OKETA MENDIAREN MAGALA, Elizondotik hurbilekoa, lau aldiz erre dute bi urtean. Nekazariak badakite larreak erretzeko suhiltzaileei eskatu behar zaiela laguntza, baina, antza denez, errazagoa da gauez joatea inolako segurtasun neurririk hartu gabe. Aurtengo urtarrila eta otsaila oso idorrek izan dira, eta, haizeak lagunduta, suteen kontrola galdu da egun askotan. Momentuz ez da ezberhar larririk gertatu, baina badira larri ibili diren artaldeak eta hauen bordak.

Sute hauek guztiak itzaltzeko, Oronozko suhiltzaileen egoitzan egoten dira arratsaldeetan zazpi gizon. Ismael Armentariz sarjentoak deialdi berezia egin nahi die Baztan-

go nekazariari: "Ulertzen dugu larreak erretzea beharrezkoa dela, baina su hauek egunez piztea ezinbestekoa da; hau dela eta, nahiko gure guri laguntza eskatzea edozer erre nahi dutenean, gure prestakuntza horretara bideratua baitago". Arazorik larrienak Erratzu, Azpilikueta eta Beartzungo nekazari batzuekin izan dituzte. Hiru toki hauek gertatzen dira suteen %70. Bestalde, Baztan-Bidasoa inguruan gertatzen diren suteen artean Baztangoen kopurua laukoiztu egiten da besteekin alderatuz gero.

Duela bi asteburu suhiltzaileek sei ateraldi egin zituz-

ten. Ostiralean, Ziga herriaren inguruan hiru hektarea mendi erre zituzten Soate, Urles eta Ullarri izeneko tokietan. Gertakari honetara lau suhiltzailek joan behar izan zuten kamioi batekin.

Agintariek ez dakite zer gehiago egin daitekeen arazo larri honen aurka, eta azkenean nonbait hilko den beldur dira, duela gutxi Ezterenzubin gertatu zen bezala.

Oronozko suhiltzaileek denetarik ikusi dute. Urtarrilean, sute bat itzali eta gauean berriro su eman zioten mendiarri. Eta hurrengo goizean han zeuden suhiltzaileak berri-
rrez ere eremu bera itzaltzen.

Gertatu izan zaie hiru sute baino gehiago ere egotea eta ezin iristea garaiz denetara.

Eguraldiak honela jarraitzen badu, suteak izateko arriskua areagotu egingo da, eta nekazari eta abeltzainen eskuetan egongo da gure mendien etorkizuna. Suhiltzaileek badakite nondik eta nora pitz daitekeen sua eta zeintzuk diren suteak kontrolik ez galtzeko jarraitu behar diren pauso guztiak. Nahikoa da dei bat egitea profesional hauen laguntza lortzeko eta bizitzak arriskuan ez jartzeko.

→ Rakes Goñi

Leitza

Zabalik da saharar umeak ekartzeko kanpaina

LEITZA, LEKUNBERRI ETA Aresora Saharako umeak ekartzeko kanpaina abian da, hurrengo apirilaren 9 arte. Udan, bere etxean saharar haurren bat hartu nahi duenak, aipatu eguna baino lehen, Gaztañaga tabernara, Farmaziara edo Gizarte Zerbitzura jo behar du izena emateko. Bestela, honako telefonoetara dei dezake: 948-610708, 948-510032 edo 948-610617.

Iazko udan gaztetxo hauek hiru herri horietara ekartzeko proiektua abiatu zuten, baina, hegazkin konpainiekin arazoak izan zituztelako, ezinezkoa izan zen bidaia gauzatzea. Aurtengo urtean, ume hauen eta Saharako herriaren egoera ez da hobetu. Aitzitik, okerrera jo du. Hori dela eta, aurrera segitzen dute haurrak ekartzeko asmo horrekin. Alde batetik, lortu nahi da haur horiek euren herrian jaso ezin dituzten hainbat zerbitzu hemen eskuratzeko. Beste aldetik, Saharako herriaren egoera politiko eta soziala zein den ezagutarazi nahi dute, herriarrak kontzientziatu eta euren elkartasuna adieraz dezaten. Aste Santuan lau lagun sahararren lurraldean izanen dira bisitan. Maiatzean egingen den kulturastean, berriz, Saharako eta hemengo eskulangileen erakusketa bat zabalduko da, jaima bat (saharar etxea) jarriko da eta Saharako ipuinak kontatuko dituzte.

→ Eli Belauntzarán

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Abiadura da gizarte orokortu honetako lehen deitura. Arinago heltzen omen dira, halaber, bidezorroetan pisu gutxiago duten zaldiak zama astuna dutenak baino. Halaxe dabil mendebaldeko gure gizarte ordenatua. Gero eta azkarago gabiltza (?) aldaketak egiten, edo bertzela errateko: gero eta aiseago ekartzen dizkigute aldaketak. Internet dela, bioteknologia dela, AHT dela, XXI. hiperkotxeak direla... arinago heltzeko... nora? Nora baino istripuak ukaiteko.

Frogatua da arintasunaren teoria. Ekin diezaiogun arinkerari.

Lehenbizi erran behar da umeak sozializatzen duen hierarkiaren lehen postuan telebista datzala. Bi segundoz hausnartzen badugu ezagutzen dugun

Dinbirri-danbarra

telearen ezaugarriak zeintzuk diren, halako gizarterantz garamatzala baieztatu dezakegu. Hau da, pikutara.

Telebistak, salbuespen ohoragarriak salbu, errealitate sortu eta desitxuratu ondoren kaka bailitza jateko eskaintzen digu. Gu kakazale amorratuak garen neurrian zitari uko egin ez eta egunero-egunero platerkada ausarkiak dastatzen ditugu.

Kakaren osotasunari behatuz gero, mami gutxi duela konturatuzko ez dugu jakintsuegiak izan behar. Horregatik da kaka: kk delako.

Informazioaren garaia dugu hau, eta kontraesana ere bai, diot nik. Informazioaren kopurua handitzen den neurrian jende informatuaren kopurua beherantz doa, geometrikoki. Hitzunen kopurua

ugaritzen den horretan hizkuntza txiroten den bezala (euskarari gertatzen zaio, adibidez).

Irudien garaian bizi gara. Dakiguna irudi hutsez osatua da. Gure diskurtsoa ez da, orain gutxi arte, iturri eta autore ezberdinen pausalekua, eslogan diskurtsiboa baizik ez da. Politikan ere batzuek erabiltzen duten tonoa erabat moderno, sarkorra, eraginkor eta aspergarria da. España va bien, España va a más. Lelo horietan eraiki da diskurtso bat. Milioi bat aldiz errepikatua izan da bozgorailu ezberdinetan. Bertze zerbait gutxiagorekin erdietsi dute helburua. Orain Lizarra-Garaziren ordua omen da. Argi dago honela jarduteak ez duela subliminalismorik behar. Amaitzeko, ohar bat. Zona Especial Norte planak (plan ZEN) bere horretan dirau.

Lizarra • Kultura ekologikoa suspertuz



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Asteburuan kontsumo berdearen lehen erakusketa izanen da herriko plazan

Ekologia Kulturaren lehen asteari bukaera emateko, Kontsumo Berdearen lehen erakusketa egingen dute bihar Foruen plazan. Bertan hainbat produktu ekologiko salgai jarriko dira.



Kontsumo Berdearen lehen erakusketa egingen dute bihar Herriko Plazan. • XOUSE SIMAL

JAI GIRO ALAIAN, TRIKITIXA, txalaparta, harriparta eta toberaren soinuekin batera, trikimakoak han eta hemen ikusi ahal izanen dira. Txoko batean antzerkia, eta tartean, makina bat elikagai, eskulan, txosten eta beste hainbat gauza izanen dira. Irudi hau xe ikusi ahal izanen da bihar Egako hirian. Izan ere, Ekologia Kulturaren I. Astea bukatzeko —aste osoz izan da—, Kontsumo Berdearen erakusketa egingen dute bihar eta etzi Lizarran.

11:00tan irekiko dute 600 metro koadroko instalakuntza. Bertako 40 bat saltokitan hainbat elikagai dastatzeko zein erosteko aukera izanen da: fruituak, barazkiak, haragia, ardoa... Nekazari, abeltzain, ekoizle eta banatzaile

ekologikoen lana ezagutzera emanen dute. Halaber, Lizarraldeko eskulangileek euren lana azalduko dute. Azkenik, ekologiaren inguruan lan egingen duten elkarte, enpresa eta erakundeek euren lana erakutsiko dute.

Erakusketaz gain, asteburuaz zehar taberna eta lapiko ekologikoa ipiniko dute Lakabe komunako neska-mutilek, eta igandean janari ekologikoa prestatuko dute.

Inguratzen den jendeari ekologiaren gaineko kontzientzia lantzeko bideak eskain-

tzea eta kontzientzia aldaketa batek nola derrigorrean jarren eta aukeren aldaketa ekartzen duen adieraztea da erakusketa honen helburu nagusia. Econavarra elkarte antolatzaileko kide lasone Cañadasen hitzetan «kontsumo ekologikoaren baitan aukera berriak izateak ekoizpen ekologikoaren hazkundean eragin zuzena du».

Econavarrak 1998. urtean Iruñean ospatutako ekitaldi baten ondoren erakutsi zuen herrialdeko bertze herri batzuetara antzeko egitasmoak

zabaltzeko asmoa; horregatik, aurtun Lizarrarat etorri dira, bertan dauden ekoizle ugari beren burua ezagutzera emateko xedearrekin. «Giza ekologiaren aldeko apustua egitea gure esku dagoela berretsi nahi genuke». «Gizartearen eraldaketari bide emateko aukera dugu, gure lurra, gure kontinentea, gure planetaren ingurune naturalaren egoera bere osotasunean —gu barne gaituen osotasuna— ulertzen hasten bagara».

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Errepidearen arriskuak

Azken aldian denen ahotan dagoen gaiari heldu dio **Mallope** aldizkariak bere azken zenbakian, N-121 errepidearen inguruko aferari, alegia. «Nazioan 121 errepidearen inguruko herriek doan izateko kanpainari ekin diote, Nafarroako arriskutsuenetakoa delako. Bertan, istripu asko, eta larriak izan direlako. Dena den, eskakizun hori lehendik ere entzin izan genuen, baina ez hainbestetan, eta hain ozen. Ekainaren 13ko hauteskunde bezperan, zenbait alderdik, sozialistek eta EHkoek adibidez, bere programan

bildu zuten eskakizun hori, baina orain arte, ez zen inolako emaitzarik ikusi».

«Parlamentuan behin eta berriz eskatu izan da Audenasaren esku dagoen A-15 autopista hori doako bihur zedila, baina ez da horrelakorik lortu, nahiz eta helburu hori zuen komisio berezi bar ere sortu izan zen ganbera horretan. Miguel Sanzen gobernuak dio proposamen hori ez dela bideragarria, horretarako beharrezkoa litzatekeen dirurik ez dagoelako gobernuan, eta gobernu horrek ezin omen dio uko

egin, autopista horri esker eskuratzen den dirutzari».


«Nafarroako Gobernuaren burugogortasuna ikusita, herri ekimenek gero eta protesta biziagoak egin izan dituzte. Otsailean, adibidez, hiru manifestazio handi egin ziren, Irurtzunen bata, Tuteran bestea eta, azkenik, Iruñean beste bat. Gauza da, herriaren nahia bildurik edo gaia isilarazteko akaso, Nafarroako Gobernuak A-15 merketzea erabaki duela berriki. Autok orain merkeagoa izango dute bai joana bai etorria. Sikiera...».

Hizkuntza sekretua

Gure hizkuntza sekretua dagoeneko aizeratuegia dago. Neska-laguna, adibidez, Hirugarren urratsean dabil. «Datorren hila-betean Laugarrenera igaroko gara», esaten dit. Eta zer edo zer apurtzen zait bihotzean: Kra! Atx! Akabo nire kuttun belarrimotxaren xarma. Edo, hobeto esan, akabo nire euskaldun peto-petoaren xarma! Akabo garai bateko arratsalde haiek, zeinetan, kaletik genbiltzala, adi-adi entzuten zituen nik esandakoak. Berak, esate baterako, Barañainen krixton haizetea zebilela komentatzen zidan eta nik Barañain hitz euskaldunaren esanahia horixe bera dela, maitia, esaten nion, eta gero iparramerikako larrugorri zahar baten gisa ahoskatzten nion, xuxuriatu egiten nion, ahots sakon eta liluragarriarekin gure harrizko hizkuntzaren hitzak itzuli egiten nizkion: lugardondehayfuerteviento. Bera, instant horretan, nitaz maiteminduago (oraindik ere!) sentitzen zen, bere begien aurrean Paleolitiko garaiko Barañain bat igarotzen zen, dena lur eta zuhaitz, eta Cromagnon talde bat ikus zezakeen, eta beraien hitzak aditu lekua bataiatzen zutenean: Barañain! Eta hori guztia niri esker, nire eskutik heltzen baitzitzaien irudimenera. Ni Cromagnon euskaldunen interpretaria bainintzen. Ni: natiboia. Atzo iparramerikako larrugorrien sineste bat komentatu nion. Gizon haiek, esan nion, hildakoen arimak animalietan, arrotetan eta zuhaitzetan bizitzen segitzen zutela sinesten zuten. Baina, are zoragarriago, etortzekoak ziren umeen izpirituak ere erreka txikietan existitzen zirela pentsatzen zuten. «Pentsamendu hori oso polita da», esan zidan berak, eta ados geundela erantzun nion. Gero, bat-batean, kale erdian gelditu eta bat-bateko aurkikuntza baten aurrean dugun harridura berarekin hitz egin nuen: «Baina... egon! Euskaraz ere 'erreka' hitzak esanahi hori du: almadeniños!» Berak barrezka: «Ea Xabier, natiboarena egitea bukatu zaizu, Hirugarren urratsean nago motel!». Jada ez naiz natibo. Jada ez naiz Cromagnonen interpretaria. Nire ahotsez ez da inor mintzo. Ni besterik. Amodioaren garra pizteko beste modu batzuk aurkitu beharko ditut. Euskalgegi madarikatu horiek bizitzak dituen gauza ederrenak hondatzen dituzte! Ez dakit nik! Agian UPNkoak ez dira kontu honetan tronpatu! •

Ondarearen babeserako

Erriberri, Uxue eta Artaxonahiru elkarte euren herrietako ondarea babesteko ari dira lanean



Artaxonako dolmenak ongi daude. El Cerco harresi multzoak, ordea, zaharberitze sakona behar du. Uxue Montero

Duela hilabete bat edo, Nafarroako Erdialdeko ondare historiko-artistikoaren babesean lan egiten duten hiru elkarte bileratu egin zuten. Erriberriko El Chapitel, Artaxonako Lagunak eta Uxuezaleak, batez ere, elkarteak ezagutzeko bildu ziren. Bakoitzak bere herriari buruz lan egiten du, bertako ondarearen zaindu eta babesteko, baina eskualde osoa dute gogoan, ondarearen erakar dezakeen turismoa diru iturri handia baita Erdialdearendako.



hobera egitea lortu dutela adierazi du Burgik. «Monumentua herriaren da», erran du. «Nafarroako historiaren zati da, eta Nafarroako lekuri ederrenetarikoa dago. Eliza da santutegiaren jabe, baina denona delako sentimendua dago, eta denok konpondu eta zaindu behar dugu». Hiru elkarteek elkarrekin egin dezaketena buruz, Burgik uste du Erdialdea sus-

G Erriberrin otsailaren 12an egin zuten bilera hartan, hiru elkarteek sei puntutan egin zuten bat: bertako balore historiko-artistikoak sustatzea; elkarte berriak sortzen laguntzea; ondarea zaintzea; erakunde ofizialak zein dirua eman dezaketen erakunde pribatuak inplikatzeko; hobekuntza guzkiek Nafarroaren kulturari isla izan dezaten ahalbidetzea; eta, oro har, kulturaren alde lan egitea.

Erriberriko gaztelua (goiko argazkian), nahiko egoera onean dago eta bisitari anitz jasotzen ditu egunero. Uxueko santutegiko (eskuibiko argazkian), hainbat zati, berriz, dorreak kasu, ezin dira bisitatu, arras egoera kaskarrean daudelako. Uxue Montero

Erriberri «pribilejiatua»
Erriberriko El Chapitel elkarteak 1992an sortu zen, herriko ondarea babestu, estudiantu, sustatu eta zabaltzeko. Javier Corcin El Chapitel elkartearen lehendakaria da. Ondarea zaintzeari eta zaharberritzeari dagokionez, Corcinek ez du ukatzen Erriberri pribilejiatua denik. «Duela 50 urte hasi ziren hemen inbertitzen, Erriberri nafar guzien erakusleho eta ondare delako», erran du Corcinek. «Bai erakundeek eta bai jendeak, oro har, zerbait erakutsi behar dutenean Erriberriari jotzen dute anitzetan. Baina ez da pribilejioa, dagokiguna baizik. Hemen ez dugu industriarik, Turismoa eta ardotik bizirik behar dugu. Justizia egitea da bertakoa sustatzea». Ez bakarrik Erriberrikoa, baita ondoko herrietakoa ere. Corcinek gaineratu duenez, «Ezagutzen ez den aberastasun handia du Erdialdeak». Hiru elkarteek egin zuten lehen bileraren horren helburua elkar ezagutzeko zen. Corcinen esanetan, «Hiru elkarteak batzen

dituena ondarearen defentsa, ezagupena eta kezka da». Dena dela, haratago ere joan daitezkeela uste du: «Jende askok ez du ulertzen berea den zerbait errespetatu behar duenik, hau da, ezin dituela nahi dituen aldaketa guztiak egin. Legea bada, baina falta da aplikatzea, eguneratzea eta malgu egitea. Beharbada gehiago hitz egin beharko litzateke ondarearen inguruan».

Uxue, nafarren ondare
Historikoki eta artistikoki betidanik egon da harremana Uxue eta Erriberriren artean. Ohitura horri jarraituz, duela hiru urte Uxuezaleak elkarteak sortu zutenek El Chapitelekoen laguntza izan zuten. Uxuezaleak elkartearen kide Mikel Burgiren erranetan, Uxueko ondareak, santutegia bereziki, utzia dago aspalditik. «Uxuen azkeneko zaharberritzea, zaharberritze hitza erabili ahal bada, 80ko hamarkadaren hasieran izan zen», adierazi du. «Lehen ere gertatu izan zen zerbait konpontzera etorri, dirua bukatu eta lan hori bukatu gabe utzea». Uxueko santutegia zaindu behar delako kontzientzia piztearren sortu zen Uxuezaleak taldea. «Plan integrala egin beharko litzateke eraikin osoa zaharberritzeko», dio Burgik. «Altzar bat dugu erakutsi beharrekoa». Uxuezaleak artzapezpikuarekin, Nafarroako lehendakariarekin eta Parlamentuko kultura batzordekideekin bildu dira hainbatetan. Behintzat, Eliza eta Kultura departamentuaren arteko harremanak

Javier Corcin



«Eskualdearen ardatz dinamizatzailea izan behar du Erriberriko gazteluak»

■ Erriberri gaztelua baino zerbait gehiago da?
Bai, noski. Gazteluak erdigunea da, baina, ondarearen aldetik, gaztelua baino anitzez gehiago da Erriberri. Lehen mailako bi elizak (gotikoak eta erromanikoak), El Chapitel, historia handiko bi monumentu bat, margolanak, artzibategiak eta zazpi jauregi. Erdi Aroko galea eta aztarnategi arkeologikoak, nahiko nabiki abandonatuta daudenak ere gehiago daude.

■ Zer nolako turismoa jasotzen duzue?
Bisitarien %80 gaztelua ikustera etortzen dira. Baina batzuk etortzen dira ardoaren kontua dela eta. Baina ez da haren egun osoa ematen duen turismoa. Paradorrera etortzen diren atzerriarrek salbu. Erriberriari etortzen diren turista asko harritzen dira hemen

ikusten dutenarekin, eta ordu gehiago ematen dituzte hemen.

■ Gaztelua kudeatzeko modua kritikatu duzu.

Nik ez dut kritikatzeko kanpoko enpresa batek egiten duelako, Udalarrena ez delako baizik. Kudeaketaren lehiaketa atera denean, Udalak eskatu du, etekin ekonomikoa bilatzeaz gainera, herriaren promozioa egitea eta lortutako etekinaren ekimen kulturalerara bideratzea. Eskarari hori ona da oraindik. Gaztelura turista guztiak etortzen dira. Horrek erakaritzen ditu eta denboraren arabera; gauza gehiago ere bisitatzeko dituzte. Gaztelutik promozioa daitezke beste gauzak, Erriberrikoak edo Erdialde osoak: monasterioak, aztarnategi arkeologikoak, ardoa. Eskualdeko ardatz dinamizatzailea izan behar du gazteluak, beste herrietako ere onura ekar baitezake.

tatzeko partzuegoaren barnean ondarearekiko kontzientziatzea bultzatu beharko luketela. «Bakoitzak bere herriari lan egiteaz aparte, eskualdeko ikuspuntua ere izan behar dugu».

Artaxonan hasi berriak dira

Hiru elkarteetan sortzen azkena Artaxonakoa izan da. Iragan abenduan eratu zen, eta heldu den apirilaren 9an egingen dute aurkezpen publikoa. Artaxonan Erdi Aroko El Cerco izeneko harresi multzoa, neolitikoko pare bat dolmen eta alde zahar polita dute

erakusteko. Hala ere, Artaxonako Lagunak elkartearen kide Angel Anduezak dioenez, «herriko ondare historiko-artistikoa erabat abandonatuta dago». «Orain arte Artaxona bazter utzi dute hainbat proiektutan. Guk lan egin behar dugu horietan sartzeko, baina horretarako Artaxonako herriak zerbait eskaini beharko luke. Jendea honera etortzen da, harresiak ikusi, eta badoa. Batzuk herrira igotzen dira, eta beste batzuk dolmenaraino iristen dira. Baina ez dute jateko ostaturik edota oroiarriak erosteko dendarik. Ez dago eskaintza serioirik. Herrietarrek ere kontzientziatu behar dira». Elkarte berriak berrehun bat bazkide dituzte dagoeneko. Artaxonaren ondarearen publikizitatea eginez, agintariak kontzientziatu nahi dituzte. Ondarearen zaharberritzeak diru asko behar du eta horren bila dabilta; ondarearen zaintzeko lana beharrezkoa dela ulerrazteko jendea baita lehena, diruaren aurretik. «El Cercon mila milioi inguru inbertitu behar dira», azaldu du Anduezak. «Guk espero genuen Sustapen Ministeriotik zerbait lortzea, baina Udalak bazter utzi du Gobernuaren aholkua dela medio». Eta horretan dabilta, ondarearen zaintzeko diru bila.

Ondarearen zaintzeko lana beharrezkoa dela ulerrazteko jendea baita lehena, diruaren aurretik. Erriberri arazo handirik gabe lortzen dute, Nafarroaren erakuslehoak delako; Uxuen santutegia zaharberritzeko plan integrala egin behar dela uste dute; eta Artaxonan mila milioi pezetan inguru behar dituzte El Cerco harresi multzoa lehengoratzeko.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Biktoriano Juaristi gogoratzen

Karrikak gremioetan banatzeko ohitura, era batera edo bestera eta neurri haundi batean behinik behin, Iruñean eutsi izan den ohitura badugu, eta hortxe ditugu margolariak Iturraman, idazleak Ermitagañan, musikariak Arrosadian edota sendagileak Sanduzelain.



Dena dela, eta Iruñeko Udalak nahi duena gora behera, simplismoan erortzeko beste modu bat baizik ez dugu honakoa, eta zenbaitean, omendu nahi denaren sotiltze ikaragarria. Kasualki, gainera, estilazio prozesu honetan norbait galtzaile ateratzen bada, horixe, dudamudarik gabe, euskararen mundua dugu, berriz ere, eta beste baterako uzten ditugun adibide ezin argigarriago Larreko edota Manezaundi dirateke. Gaurkoan, ordea, Biktoriano Juaristi Sagartzazuren inguruan jardungo dugu. Sanduzelaiko *Doctor Juaristi* karrikari izena eman zionaz alegia. Donostiako Puyuelo karrikan jaio zen, 1880ko martxoaren 6an, sendi txiro baten altzoan; aita azkoitiarra eta ama donostiarra izan ki, euskara izan zuen hizkuntza bakarria eskolan hasi zen arte, baita geroago ere, bere bizitzaren zenbait esparrutan bederik ere. Ikasketetan bereziki gailendurik, gurasoek Gipuzkoako Institutuan matrikulatzea erabaki zuten, horretarako berebiziko esfortzu ekonomikoa egin behar izan bazuten ere, eta behin ikasketa ertainak bukatuak, Valladolid aldera jo zuen medikuntza burutze- ra. Karrera bukatutakoan, Lasarten ezagutu zuen Adriana Manini Acebedo klase oneko neska madrildarrarekin ezkondu eta Santanderko Madrazoren sendategira joan zen mediku lanari lehenbiziko ekiteko. Santanderren bi urte emanda, Irunera egin zuen, eta Bidasoaldeko hirian hamabost bat urte egin ondoren, Iruñera etorri zitzaigun 1919an, non Arraiza eta Canalejo lankideekin San

Migelgo erietxea sortu zuen. Iruñetik jada ez zen sekularen lekutu, ezpada Hondarribian zuen etxera eginiko lanarteko ihesaldi laburren- gatik, eta medikuntza arloan alimaleko lana burutu ostean, bere Iruñeko etxean zendu zitzaigun, 1949ko apirilaren 4an. Barojatarren lagun hurkoa, Caro Barojak honela deskribatu zigun: «Juaristi era guipuzcoano de San Sebastián, pero tenía el aire de un mediterráneo puro, con ojos grandes, barba negra entonces, y mucho empaque, unido a cierto gusto por la befa... Tenía una versatilidad parecida en algo a la de mi tío Ricardo, y lo mismo quería operar, que pintar, que esculpir, que componer música». Eta ez zebilen hagitik oker Caro Baroja, bada, gure Juaristi esku bete lanekin beti egoten zen pertsona baikenen, mediku lanaz gainera, atsegingarri zituen bestelako zereginetan ere. Gaixoen artatze lanetan langile porrokatua ez ezik medikuntzazko lan ugari idatzi zituen Juaristik, baten bat nabarmentzekotan, ausaz, 1921-1922ko *Manual Español de Cirugía* ikerketa gotorra aipatu beharko litzateke, etorkizuneko Euskal Unibertsitateari eskeini ziona. Horrezaz gainera, beste hamaika liburu zein artikulu atera zituen hantzena: *Al lado del enfermo*, *El riesgo operatorio*, *Angiomas y varices*, *Ganglios linfáticos y médula ósea...* Arte Ederrekin ere lotura estua izan zuen, eta San Fernandoko akademiakidea genuen, eta hortaz ere, Nafarroako Monumentu Historiko



eta Artistikoen batzordekidea. Esmalteztaketan espezialista handia izan zen, eta *Esmaltes con especial mención de los españoles* izenburuko ikerketa plazaratu zuen 1933an, baita Aralarko San Migelgo erretaularen gaineko ikerketa ere 1947ko *Príncipe de Viana* aldizkarian. Bide beretik ere, 1944ko *Las fuentes de España* lan monografiakoa burutu zuen. Musikazale aparta ere izan zen, eta txeloa jotzeaz gainera, idatzi zituenetik bi zartzuela ezagutzen dira, *La batelera* eta *La caserita*, sekula taularatu ez direnak. Literaturaren arloan ere hainbat lan utzi zituzkigun intereseko. Euskal Kulturaren Batzordeak eskatuta *Contribución de los médicos a la cultura del país* hitzaldia eman zuen Bilbon 1920an, non Euskal Herriko hainbat konturi aipamen zuzena egin zion, euskara dela edo gai antropologikoak direla. Bost urte beranduago *La calle del Puyuelo* hitzaldia eman zuen Donostian, Gipuzkoako Ateneoak deituta, eta bertan bere haurtzaroko pasadizoak jaso zituzkigun, tartean zazpi urte zituen gertaturikoa, hau da, etxeko eskaileren zulutik laugarren pisutik erori zenekoa. Juaristiren lehenbiziko elaberria 1928an agertu zen Donostian, *Costa de plata* izenburupean eta Victor Ivan ezizenez. *El coloquio de las edades* 1935ekoa dugu, eta urte berean *Los caminos de Navarra* elaberri laburra eman zuen argitara. Bestalde aipagarria gertatzen da *El Bidasoa* aldizkaria 1915ean berriz ere ager zedin burutu zuen lan itzela, kolaboratzaile finkoen eta emankorrenetakoa izan zelarik. Tamalez, Juaristik idatzi zituen guztietan erdara da nagusi, eta beste behin ere euskaraz pentsatu baina erdaraz idatzi duen idazle baten aurrean gaudela esan behar da.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Kaleusoentzako ogi papurrak

BISUTS URTEAZ: Hala omen da aurtengoa, hala aditu diot aitari etxean: «Bisuts urte, gaitz urte», batez ere, haurdunaldi edo ernarialdi gaizto, ume izate bihurri eta jaitze helbarri asko sortzen omen direnkoa, gizakietan ala abereetan.

Dena dela, ikusi nahiko nuke zein den erdarazko bisesto horren euskal usario-rik jatorrena Euskal Herri osan jiratxo bat emanez? Leizarragaren ondoko eta inguruko bisexta hobetsi du OEHak; orain hangoa bakarria baitugu noski, ona; baina tradizio idatzi (ez beti zuzen jatorrenetzat joa) motz gelditzen denean, ahazkian gehixeago zirikatzeak ez liguke kalterik egiten inori. Esate baterako, niri, etxeko usarioan: «aurten bisustu al dugu?»; heldu den urtean bisustuko du; bisusten duen urtean, erne!» eta gisakoak aditz modura jokatuak maiz aditu izanik, oso pobre iruditu zait bisexta soil hori hobetsi izana. Baliteke, horretan ere, usario bereko aditz jokaerak izatea: bisextatu, bisextatzen, bisextatuko, bisextaturen edo gisakoak, baina, ez dut inon deus jaso denik sumatu. Entenitzen?

KIRATS FILANTROPIKOAZ: Nork bere buruaz arruntan maitagarria edo gorrotagarria dela uste izatea, hagituz juzku axalekoa da, aldarreak eragindako ergelkeria. Erro erro-rik, gizonak bere bakarrean, ez baitu sinesten ez bat ez beste denik. Baina, jende politizatuak, hiritartuak, neurotikoa denez, gizakiaganako errezeloa izan beharra dauka derrior, eta erre- zelo hori konjurtzeko modurik disimulatua, errezero horren onarpenean bilatu du.

Nork bere burua maitakor azaltzeko bizioa, disimulo horrexegatik ugalduta, eta zinez inor maite ez duen jendegagan gailendu izugarri. Begira gizadi-az hain gora kezkatuak ageri diren altruista horiei, iza-

tez arrunt gizatarra den kiratsa darie: ez dute inor maite; eta inor zenbat eta gutiago maite, orduan eta maitakor- rago azaltzen dira, eta gero eta jende gehiagok adora ditzan irrikitzen dute. Bai bai, publi- kotik eta publikoarentzat bizi diren horik guziak, joder!

ERLIJIO HEZIKETAZ: Bal- din, oraintxe bertan, beste leku batera joan beharko banu, nagoen tokira sekulan ez bihurtzeko, ez dakit zeren hutsa sumatuko nukeen? Behar bada, leiho honetatik ikusten dudana paisaje ederra. Halare, hementxe nago, eta ez dut hatzik ere mugitzen leihoa zabaldu eta bazter ederrotan atsegina bilatzeko. Are gehiago, egun asko igaro ditzaket inguru ederrari batere begiratu gabe, eta baliteke, bihar goizean luzaro begiratu eta, deustaz ez oharzte ere.

Kontua hola, esan dezaket, sorkaririk ergeleneakoa dela gizakia; izan ere, sofritu egiten baitu bere eskura izandakoan zipitzik ere gozatu eztao haren hutsa sumatzean, eta hori aski ez, ez baita gainera inoiz ase- tzen ezinezko beharrak asma- tzen. Hauxe duzu erlijio edo pentsaera filosofiko guzien be- tiko bazka: ezinaren esajera- zioa. Ez, bistan da, bere gogoa asperralditik oinazealdira era- man ekarrian, alferrik neka- tzen duela bere burua gizakiak. Bidean galtzen baitu atseginal- dia beti.


OFIZIOETAN OPAROENAZ: Pizti-ek hegan edo ehizan ikas- ten duten bezala, gizonak disimul- atzen ikasten du; hauxe dugu ofizioetan oparoena: imi- tatuz gizatxartu. Hala, gezurra badirudi ere, herriko jendeak, gizaera konkretuak nabari- ren lekukoak, alegia, giza es- kema jenerikoak nahiago ditu, betiko arketipoak; artapuskak edo gaizto amorratuak, alderdi onak edo gaiztoak esajeratuz sortutako gezur horiek, alegia. Jakina baita gezurtirik esajera- tuenak ikaragarri sineskor- rak izaten direla.

Ziria

• Motxorrosolo •


Koordinakundea

BATZORDEENA AKITU GABE ERE, BESTELAKO EKINBIDEAK nozituko ditugu, tentsioa bere horretan mantentze al- dera. Alta, batzuk temati jarraitzen badute —urtegiarenean inguruko epaia dela-eta bakarren batek *errandakoa* gogo- an—, gisa horretako lehia dugu, salaketa bide, historia hur- bilak erakutsi legez, aitzinamendua ekarri duena. Koordina- kundearen jarduna eredugarria izan baita.

Pello Iturria  BOTIKARIA

«Mendian jaten dugunarekin kontu handiz ibili behar da»

Iragan azaroaren hasieran, Zilbeti inguruan mendizale bat hilik aurkitu zuten; hil aurretik baia batzuk hartu eta gaixotu egin zela kontatu zuen bere grabagailuan. Pello Iturriak albistea irakurri eta Belladonaren inguruko azterketatxo egitea pentsatu zuen, erabat harritu baitzen mendizale batek horrelako landare toxikoa hartu zuela irakurtzean.



● KRISTINA BERTAIN

OSO POZIK AZALDU DA Pello Iturria egindako lanarekin, eta are gehiago lana euskaraz eman ahal izan duelako. Iragan astean Nafarroako farmazialari euskaldunen aurrean aurkeztu zuen, eta orain Nafarroako farmazialarien elkartearen aldizkarian argitaratu du, euskaraz eta gaztelaniaz.

■ Nolatan egin duzu ikerketa?

Komunikabideetan azaldu zen berria, eta berehala gauza arraro bezala antze-man nuen; agian lanbideagatik izango da, baina ikaragarri interesgarria iruditu zitzaidan. *Atropa Bella-donna* oso landare ezaguna da, eta pentsatu nuen nola demonstre hartu zituen mendizale horrek horrelako baiak. Orduan, han eta hemen gal-

Ederra Nafarroako Unibertsitateko Botanika Departamentuko arduradunak Nafarroan Belladonari buruz egindako ikerketa eman zidan; oso leku gutxitan azaltzen zen, baina Aliciak berak esan zidanez, ziurrenik askoz ere leku gehiagotan izanen da Belladona, normalean landare arruntei arreta gutxiago eskafntzen baitzaie. Belladonak fruitu borobilak ditu, gerezi edo patxaran antzekoak, oso erakargarriak, baina oso toxikoak; berez mikatzak dira. Mendizaleak hartu, eta ikusi zer gertatu zitzaion.

■ Nola eragiten du heriotza?

Atropa Bella-donna oso toxikoa da, dosi handietan urduritasuna, sumina, haluzinazioak eta eldarnioak era-

Espainiako Toxikologian Institutuan eman zidaten datuen arabera, lagin guztietan Atropina aurkitu baitute. Hala ere, oso zaila izaten da Belladona dela-eta hil zela esatea; oso zaila da norbait droga gaindosiagatik hil dela esatea, gauza asko hartu behar dira kontuan. Kasu honetan inork ez du ezer erreklamatu, eta epaileak kasua artxibatu egin du. Azterketa toxikologikoan lorituriko datuekin hartutako sustantziak heriotza eragin duen edo ez esatea oso zaila da, beste gauza asko hartu behar baitira kontuan.

■ Hala ere, botika askotan erabiltzen da.

Bai; gaur egun botika askotan erabiltzen da Atropina edo Belladona bera, baina oso dosi txikitik. Oso medikamentu ezagunak dira, baina Belladona oso kontzentrazio txikia dute.

■ Horrelako landarea Europan sorgin eta deabruen istorioekin lotzen zutela ere esan duzu.

Bai, eta hori egiaz izaten zen. Printzipio eraginkorrak eta alkaloideak ezagutu aurretik, ustez sorginak zirenek erabiltzen zituzten. Azken batean, alkaloide horiek neurri batean hartuta zorabioa eragiten dute;

soslaia

Oso pozik dago bere lanarekin, eta antzematen zaio gustura erakusten duela. Iragan astean Nafarroako Farmazialari Euskaldunen aurrean arituz, eta oso pozik geratu zela dio.

Hamahiru kide izan ziren hitzaldian, berak uste baino gehiago, eta, euskaraz, landare toxikoen inguruko eztabaida polita egin zutela esan du.

Karrera amaituta ikasi zuen arren, euskararen «zale amorratua» dela dio, eta, horregatik, bere eremuan ahal duen neurrian bultzatzeko lan handia egiten ari da.

droga da azken batean. Garai hartan sorgin eta deabruen gauza ziren, eta hura erabiltzeagatik sutara botatzen zituzten Erdi Aroan. Solanazek, hau da, Belladona, Erabelarra eta Mandragorak, zorabiatu egiten dute, eta Erdi Aroko halako errituetan erabiltzen zituzten sorginek nonbait; deabrueriak egiteko erabiltzen zituztela esaten zuten. Garai hartan ez zituzten landareak ezagutzen, ez zuten beren konposizioa ezagutzen, baina zorabiatu egiten zirela ikusten zuten, horralako landareak hartzean gauza arraroak egiten zituztela ikusten zuten, eta horregatik, sorginkeriekin erlazionatzen zuten. Drogatu egiten ziren azken batean.

■ Honetatik irakaspen

argia ateratzen dela diozu.

Mendian hartzen denarekin kontu handiz ibili behar da, eta batez ere umeak. Hori da ondorio politena, poliki ibili behar dela mendian perretxikoekin eta jaten dugunarekin. Gazteak adibidez askotan joaten omen dira mendira *mongi* edo horrelako onddo haluzinogenoak hartzera. Oso arrikutsua da mendian ezer hartzea ezagutu gabe; nik ez nituzke hartuko. Txikitik oso ohikoa da herrietan, mendian, baratzean, topatzen den guztia hartzea; guztiok egin dugu hori noizbait, baina benetan arriskutsua da zer den jakin gabe ezer hartzea. Ez da normalena, baina ezbeharrak izan daitezke.

«Erdi Aroan Europan sorgin eta deabruen kontua zen *Atropa Belladonna*; ez zuten landareen konposizioa ezagutzen, eta, erabiltzean zorabioak eta gauza arraroak eragiten zituenez, sorginkeriekin lotzen zuten»

detu dut, zenbait gauza jaso ditut, eta Farmazialarien elkartearen hiruhilabetekarian argitaratu dut; oso interesgarria iruditu zitzaidan bertan emateko. Egia esan Belladona oso ikertua dago, duela ehun urte baino gehiago ere ikertu zuten, baina beharbada hemen ez dago behar bezala ikertuta. Alicia

giten ditu, garuneko azaleko geruza estimulatzen egiten du. Heriotza sortaraz dezake errabiolako paralisia eragiten duelako, eta horrela arnas paralisia gertatzen da, eta azkenean, heriotza eragiten du.

■ Hori al da mendizaleari gertaturikoa?

Ziurrenik hori izango da,

→ Miren Iriarte



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Zorionak CDNri

Ezina ekinez egina. Ezinezkoa zirudien gehiengo osoa UPNk lor lezake hurrengo hauteskundeotan, batez ere sozialisten ekinari esker. Orain Lizarbek oposizio inteligentea egin nahi omen du. Inteligentzia militarra ezinezkoa den bezala, biak kontzeptu ezkontezinak direlako, barruko kaka garbitu nahi ez dutenek ere nekez egingen dute oposiziorik, eta are gutxiago inteligentea. Noizbait tentazioa sentituz gero, egunotan periodikuetan agertzen ari diren albisteak bezalakoak helduko dira, kateari lotuta segitzen dutela gogoratzeko. Sozialistak, hala ere, hauteskunde emaitzekin kontent daude. Inteligentea iritzi hori ere.

Alderdi abertzaleetako buruak ere kontent agertu dira. Otegik pozik zegoela zioen Labriten. EHko jarraitzaileen artean baikor egoteko arrazoirik aurkitzen zuen bakarra delakoan nago. EA-PNVkoak ere pozik, batez ere jeltzaleak, sekulako gorakada lortu dutelako. Hobe aurreko eta oraingo portzentaia ez aipatzea. Gogoratu, hori bai, gaurko egoera politikoan ere Nafarroan batera aurkezteko gai ez diren bi alderdiok ez luketela Iruñean zinegotzirik lortuko. Biak, hala ere, pozik.

Eta, azkenean, CDN. Emaiztarik txarrena lortuagatik, zorionak porrota aitortzeko gai izan direlako.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Oragarre:** Bihar Ekon taldea izanen da, frontoian, 22:00etan.
- **Irunberri:** Bihar La Polla eta Buitraker taldeek kontzertua emanen dute, gaueko hamabietatik aurrera. Ondoren, gaupasa izanen da Trikizio taldearekin eta hainbat DJrekin. 23:00etan doako autobusa aterako da Iruñeko autobus geltokitik.
- **Burlata:** Asteartean In Vitro taldeak Black Rose tabernan joko du, 20:30etan.

HITZALDIAK

- **Bera:** Gaur, Itoizko hainbat solidariok hitzaldia emanen dute Jamotenean, 19:00etan.
- **Zizur Nagusia:** Ostegunean, 19:30etan, kultur etxean, Zizur, bizikidetzarako tokia gaiaren gainean ariko dira, gaztelaniaz, Koldo Ibañez de Elejalde soziologoa, Victor Honorato arkitektoa, Luis Mari Iriarte Zizur Nagusiko alkatea eta Jose Joaquin San Martin Zizur Txikiko kontzejuko lehendakaria.

BERTSOLARIAK

- **Baiona:** Bihar, Jon Maia, Amaia Agirre eta Unai Iturriaga izanen dira. Poloko gaztetxean, 20:30etan.
- **Bidarrai:** Nafarroako Txapelketako lehen finalerdia jokatu dute igandean, 16:30etan, Bittor Elizagoien, Estitxu Arozena, Amets Arzallus, Txomin Ezponda, Fermin Mihura eta Mikel Altzuart bertsolariek.

ANTZERKIA

- **Etxarri-Aranatz:** Bihar, Txanogorritxo eta Barbantxo haurrentzako antzezlanak taularatu dituzte kultur etxean, 17:00etan.

- **Bera:** Bihar, Lesakako Antzerki Taldeak Fernando Arrabalen *Trizikloa* antzezlan eskainiko du, kultur etxean, 20:00etan.
- **Bera:** Igandean, Gorakada taldeak *Txano Gorritxo txotxongilo* emanaldia eskainiko du, kultur etxean, 17:00etan.

ZINEMA

- **Iruña:** Gaur, Joseba Salegiren *Ione, igo zerura* filma emanen dute, euskaraz. Aurretik, Begoña Vicarioren *Haragia* film laburra pantailaratuko dute.

Emanaldia 20:00etan izanen da, Golem zinematokietan.

ERAKUSKETAK

- **Burlata:** Apirilaren 2 arte ikus daitezke Asuncion San Martinen margolanak kultur aretoan, asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara, eta igandean 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruña:** Apirilaren 6 arte ikusgai dago Iñaki Bergararen *Ekudor, istorio tikiak* argazki erakusketa Maisonnave hoteleko Iruña galerian.

BESTELAKOAK

- **Iruña:** III. Hamabostaldi Antidesarrollistari akabera emateko, igandean mendi martxa egingen dute Alaitzera. Hitzordua goizeko bederatzietan da, Gaztelu enparantzan. Edo, bestela, hamarretan Untzue herrian.
- **Bardeak:** Orreaga kultur elkarten bilguneak antolatuta, ibilaldia egingen dute igandean. Izena emateko deitu 948-22 22 46 telefonora.

JOXE LACALLE



Eup!

Iragan astean, istripua izan zuen gidari batek Sadar futbol zelai ondoko ustezko putetxe baten ondoko biribilgune baten ondoan. Zerk aldrebestu zuen, baina, gidariaren burua bihurtzea gaizki hartu eta autoa atzekoz aurrera uzteko? Osasunaren goitibeheitiak, partida ondoko igoera malkartsuak edota biribilguneak berak? Berdin dio. Osasunari eskerrak, han zituen hainbat jubitatu eta pare bat udaltzain ibilgailua bere horretan paratzeko. Gizon batek aldrebesten duena bertze seik konpondu behar dute. Irudia ikusita, batek baino gehiagok pentsatu du udaltzainek zerbaiterako balio izan dutela azkenean. Izan ere, arbas zabalduta dago auto butxadura baten hasieran (edo bukaeran) halabeharrez udaltzain baten esku hartzeak egon behar duelako ustea.

Eta zer izan zen lehenago arrautza edo oiloa?, butxadura edo udaltzaina?